

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### Hizkuntzak ikasteko 2020ko dirulaguntzetarako deialdiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 503331

Alkatearen ebazpena, 2020ko apirilaren 15ekoa, zeinaren bidez deialdia egiten baita lehiaketa prozedura bidezko hizkuntzak ikasteko 2019-2020ko dirulaguntzetarako.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai ([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).

#### Lehenengoa. Onuradunak

Onuradunak izango dira 16 urtetik gorako pertsonak, haien ama hizkuntza ez den edozein hizkuntza ikasteko. Adin hori beteta eduki behar dute dirulaguntza jasoko duen ikastaroa hastean.

#### Bigarrena. Xedea

Deialdiaren xedea da Arratzua-Ubarrundiako udalerrian errolatuta dauden eta hizkuntzak ikasten dituzten pertsonen emandako dirulaguntzen kontsezioa arautzea.

Dirulaguntzaren xede izango dira edozein hizkuntza ikasteko matrikula gastuak, baita atzeritarrentzako gaztelaniarena ere.

Honako gastu hauek ez dira sartzen: joan-etorrien gastuak eta barnetegien kasuan mantenu gastuak eta ostatu gastuak.

Pertsona bakoitzak egiten dituen ikastaro eta barnetegi adina beka eska ditzake, baina ikastaro bakoitza behin bakarrik lagunduko da diruz.

#### Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko otsailaren 24ko bilkuran onetsi ziren eta apirilaren 8ko 41/2020 ALHAOn argitaratu ziren.

#### Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Matrikularen prezioaren ehuneko 100, euskara ikasteko; gehienez ere 200 euro.

Matrikularen prezioaren ehuneko 75, beste hizkuntza batzuk ikasteko; gehienez ere 200 euro.

Gehienezko 200 euro horien muga ez da aplikatuko baldin eta egin beharreko adjudikazioak egin ondoren ez bada agortzen aurrekontu partida. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ez da gaindituko matrikularen prezioaren ehuneko 100 euskarararen kasuan, edo ehuneko 75 gainerako hizkuntzen kasuan.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztu diren eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan murriztuko da eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

#### Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak egingo dira oinarrien eranskinean ageri den ereduan, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu behar da, eta aurkezteko epemuga 2020ko urriaren 31 izango da.

**Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak**

Ikastaroa egin den ikastetxearen egiaztagiria, non hau adierazi beharko baita: hasi den ikastaroa eta amaitutakoa, orduen guztien kopurua eta ikaslea ikastaroan benetan izan den orduen kopurua (gutxienez, orduen ehuneko 80ra joan behar du), noiz hasi den ikastaroa eta noiz amaitu den, eta ikastaroaren kostu osoa. Barnetegiak izanez gero, hezkuntza, otordu eta ostatu gastuak zein bere aldetik zehaztuko dira.

Matrikularen fotokopia eta hura ordaindu izanaren egiaztagiria.

Diru sarrera egin nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, adieraziz zein den titularra baldin eta ez bada dirulaguntzaren onuraduna.

Dura, 2020ko apirilaren 16a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*